



Herritar Plataformako kideak Kale Nagusian egon ziren herritarrei programa azaltzen.



EAJko kideak ostirala goizean, Sagardotegi kalean egon ziren haien programa banatzen.



Bilduk ostiralean dantza, musika eta hitza batzen zituen ekitaldia egin zuen Sagardotegi kalean.

Bozken bila jarraitzen dute alderdiek

Hurrengo igandean Udal eta Batzar Nagusietako hauteskundeak izango dira.

Lorcako lurrikarako kaltetuei elkartzatuna adierazteko, herriko alderdi politikoek ostegunean hauteskunde ekitaldirik ez egitea adostu zuten eta atsedena egon zen herrian.

Hala baina, ostiralean eta asteburuan

alderdi politikoek herritarrei haien programa azaldu eta haien aldeko bozka eskatzen jarraitu zuten.

Ostiralean, Sagardotegi kalea izan zen EAJ eta Bilduk kanpaina egiteko.

Goizean EAJko kideak eta Estixu Alkorta alkate gaia haien programa banatu zieten bertatik igaro ziren herritarrei.

Arratsaldean, berriz, Bilduk herritar ugari bildu zuen ekitaldia egin zuen. Honetan, musika eta dantzaz gain, hitza izan zen nagusi alderdiko kideek Udal eta Batzar Nagusietako programa azaldu zuten.

Bestalde, larunbatean, LOHPko kideak Kale Nagusian egon ziren haien programa herritarrei azaltzen. •



Begiristain eta Etxezarreta garaile Gomazko pilotako pala txapelketan /2

GIZARTEA /6
Udaleko diru laguntzak emateko araudi orokorra onartu zuen ostegunean Udalbatzarrak



Buruntzaldeako igerilariek emaitza paregabeak izan zituzten Sopelan /3

Estixu Alkorta

bozkatu EAJ PNV Jakin eta egin

Lasarte-oria

ONENA EMATEKO GARAIA




Partida luzea, ordu eta erdi baino gehiagokoa izan zen aurtengo Gomazko pilotako pala txapelketako finala,



Xabier Etxezarreta eta Jon Begiristain Ostadarreko txapelketako saria eta antolatzaileekin.



Santi Martinek eta Bernaitz Odriozolak bigarren postua eskuratu zuten.



Hirugarren postua lortzeko lan egin behar izan zuten Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibarrek.

Jon Begiristain eta Xabier Etxezarretaren eskuetan da txapela

■ Bernaitz Odriozola eta Santi Martin 30-17 garaitu zituzten ■ Iñaki Lizasok eta Joserra Alzibar izan ziren 3. postua eskuratu zuten bikotea

Ostadar K.F.-k antolatzeko duen Gomazko pilotako pala txapelketak garaile berriak ditu, Jon Begiristain eta Xabier Etxezarreta. Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga bikotea zazpi urtez nagusi izan arren, aurten ez dira txapelketako azken fasera iritsi.

Final handia, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin Jon Begiristain eta Xabier Etxezarretaren aurkako partida hasi baino lehen ohorezko agurra dantzatu zitzaizien jokalariei.

Ostean, partida luzea eta interesgarria ikusi zen Michelingo frontoian.

Tanto luzeak eta pilotakada askokoak egin zituzten. Bai aurrelariak, baita atzelariak ere lan handia egin zuten partidetan eta azpimarratzekoa izan zen Jon Begiristain aurrelariaren lana.

Tantoak amaitzeko era bakarra arerioaren hutsa edo pilota txapa gainean uztea izan zen.

Honela, Jon Begiristain eta Xabier Etxezarreta 30-17 gailendu ziren.

Ez amore eman

Baina, txapelketako finala baino lehen, 3. eta 4. postuak erabakitune norgehiagoka ikusi zen. Honetan, Iñaki

Lizasok eta Joserra Alzibarrek Josu Iparragirre eta Iñaki Altzuri izan zituzten aurretik. Izan ere, Koldo Rozasek ezin izan zuen partidaren erdia.

Aise jarri ziren aurretik Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibar. Baina 20-5ko markagailua zegoenean, garaipena borrokatu behar izan zuten, Josu Iparragirrek eta Iñaki Altzurik errenta gutxitzen joan baitziren.

Hala ere, partidaren azken uneetako Josu Iparragirre eta Iñaki Altzuri bikotearen hutsak garaipena, 30 eta 21, eman zien Iñaki Lizasori eta Joserra Alzibarri. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Sopelan emaitza paregabeak lortu zituzten igerilariek

Buruntzaldea IKTko hiru kide txapeldun, bi txapeldun orde eta beste bat hirugarren

Lehenengo igandean, maiatzaren 8an, Buruntzaldea IKTko infantil, junior, promesa eta absolutu mailako kideek V. Sopelanako Udala sarian parte hartu zuten.

Borja Apeztegia entrenatzaileak jakitera eman digunez, emaitza bikainak lortu zituzten igeriketa taldeko gazteek: 3 txapeldun Alazne Egiazabal absolutu mailan, Itsaso Tolosa eta Iñigo Ibarburu infantiletan; bi txapeldun orde, Alazne Egiazabal eta Naroa Goikoetxea; hirugarren postu bat, Mikel Arribillaga, 34 marka personal eta Euskadiko lau marka gutxienera.

“Taldekide guztiak bikain aritu ziren,” azaldu digu entrenatzaileak.



Buruntzaldea IKT-ko kideak eta entrenatzaileak Sopelako txapelketan lortutako sariekin.

Arg.: Buruntzaldea IKT

Kevin Iglesiasek, Unai Buenok, Haitz Mitxelenak eta Garazi Alkortak.

Erreleboa

Azkenik, 8x50 libre errelebo mistoan parte hartu zuen taldeak.

Garazi Alkortak, Itsaso Tolosak, Naroa Goikoetxea, Alazne Egiazabalek, Iñigo Ibarburuk, Haitz Mitxelenak, Oier Mitxelenak eta Mikel Esnalek osatutako erreleboak garaipena lortu zuten.

Borja Apeztegiak aipatu digunez, “taldea hasieran hirugarren postuan hasi bazen ere, taldekideak saltatu ahala postuak irabazten joan ziren. Azken aurreko postan lehendabiziko erreleboa harrapatzea lortu genuen eta Mikelek egindako azken postak garaipena eman zion taldeari.”

Jantzi berriak

Lorpen hauetaz guztiez gain, entrenatzaileak jakinarazi digu, Buruntzaldea IKT kirol jantzi berriak estreinatu zituztela proba honetan.

“Ederra izan zen talde osoa berdin jantzia ikustea bai kanpoan, baita igerilekuan ere,” adierazi du Borja Apeztegiak. •

100 estiloak

Entrenatzaileak adierazi digunez, 100 m. estilo proban Kevin Iglesiasek, Iñigo Ibarburuk, Haitz Mitxelenak, Oier Mitxelenak, Mikel Esnalek, Garazi Alkortak, Itsaso Tolosak, Naroa Goikoetxeak eta Alazne Egiazabalek marka pertsonalak lortu zituzten.

Honetaz gain, Iñigo Ibarburuk (1'12"60) eta Itsaso Tolosak (1'17"26) haien mai-

lako Euskadiko marka gutxiengoak lortu zituzten.

50 tximeleta

50 tximeleta proban ere Itsaso Tolosak bere marka gaintzeaz gain, Euskadiko marka gutxienera lortu zuen.

Tolosaz gain, Kevin Iglesiasek, Unai Buenok, Mikel Arribillagak eta Naroa Goikoetxeak ere marka pertsonalak hobetu zituzten.

50 bizkar

50 bizkar proban, berriz, Iñigo Ibarburu izan zen, bere marka gaintu eta Euskadiko marka gutxiengoa egin zuena.

Baina ez zen bere marka hautsi zuen bakarria izan, Kevin Iglesiasek, Haitz Mitxelenak, Oier Mitxelenak, Mikel Esnal-ek, Alazne Egiazabalek, Naroa Goikoetxeak eta Garazi Alkortak ere marka haustea lortu baitzuten.

50 bular

Era berean, 50 m. bular proban, Iñigo Ibarburuk, Haitz Mitxelenak, Mikel Esnalek, Kevin Iglesiasek, Mikel Arribillagak, Oier Mitxelenak, Garazi Alkortak eta Itsaso Tolosak lortu zituzten haien marka pertsonalak hobetzea.

50 libreak

Eta 50 m. libre proban, berriz, haien marka hobetu zuten



Trebetasun handiz jokatu zuten Errugby eskola desberdinetako gazte txokak. Argazkian, Beltzak Ostadar Jalai taldeko benjaminak lehian.

Errugby topaketa jendetsua

Igande goizean, Michelingo zelaian ez zen futbolik jokatu, errugbya baizik.

Beltzak Ostadar Jalai errugby eskolak lehenengoz antolatuta Gipuzkoako Errugby eskolen Topaketa eragin zen bertan.

Benjamin eta alebin mailako lurraldeko hamar errugby eskolako 200 bat haur bildu ziren eta haien trebetasuna erakutsi zuten.

Lehenengo orduan eguraldia lagun izango zela bazirudien ere, txarrera eragin eta

eguripean jolastu behar izan zituzten partida batzuk.

Futbol zelaia, errugbiko lau zelaietan banatua eta profesionalen antzera, meleak, baloia eskuratzeko borrorak, entseguak... ikusi ziren Michelinen. •

JUDO

Mario Garrido Espainiako txapelketara

Mario Garrido, LOKE judo saileko gazteak apirilaren 30ean Zaragozan egin zen 23 urte azpiko Iparraldeko eremuko txapelketan Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuen.

Mario bere mailako, 66 kilo azpikoan, bigarren postua eskuratu zuen eta hurrengo larunbatean, maiatzaren 21an, Villaviciosa de Odonen lehiatuko da Espainiako txapelketan. •



Mario Garrido Arg.: Gorka Aristegi

OSTADAR K.F.

Denboraldi amaierako afaria

Ostadar K.F.-k jakin arazten du, denboraldi amaierako afaria maiatzaren 28an Araetan ospatuko duela.

Afarirako txartelak Ostadarreko bulegoan salgai daude, astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara. Tiketa erosteko azken eguna maiatzaren 20a izango da. •

BURUNTZ-AZPI ELKARTEA

Arrantza txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du maiatzaren 29an, elkartearen arrantzaldi arineko txapelketa antolatu dela.

Txapelketak, goizeko 9:00etatik 12:00etara, Leizaran ibaiko eremu librean izango du lekua. •

Maiatzaren 22ko hauteskundeetan Lasarte-Oriako alkatezarako aukeratu diren hautagaien...

Jesus Zaballós, PSEide, logo

Pablo Barrio, Bildu, logo

Estxu Aukorta, EAJ PNV, logo

Ana Isabel Prieto, Euzko Lehen Alderdi Sozialista, logo

Vanessa Velez, Euzko Lehen Alderdi Sozialista, logo

Ricardo Ortega, Euzko Lehen Alderdi Sozialista, logo

Natxo Izeta, Euzko Lehen Alderdi Sozialista, logo

Maiti Bengoetxea, Euzko Lehen Alderdi Sozialista, logo

Nire proposamenak lau ardatzetan banatzen dira. Batek, ongizate orokorra...

Udal politikak herri barrutiko espazioa eta herriarrak ditu bere...

Gure udalaren egoera ekonomikoari iraultu bat eman behar...

Nire lehentasun funsezkoena eta zuzenena udalaren kudeaketa...

Gizarte jardunaldiak, erakundeak, erakundeak...

Quisiera ser alcalde de "Lasarte-Oriakua" Daria a los pobres, malita...

Honela da: "Lasarte-Oriakua" herriaren izena gure elkar...

Lehenik eta behin, udaleketa izaki herriarrangandik gertuen dagoen...

Azkenik, gure eredu soziala dinamizatzen izango dugu...

Uste dutenak, Lasarte-Oriako udalaren arazoak konpontzen dituen...

Herriaren entzuna eta aintzat hartzea...

Nire lehentasun funsezkoena eta zuzenena udalaren kudeaketa...

Gizarte jardunaldiak, erakundeak, erakundeak...

Quisiera ser alcalde de "Lasarte-Oriakua" Daria a los pobres, malita...

Honela da: "Lasarte-Oriakua" herriaren izena gure elkar...

Lehenik eta behin, udaleketa izaki herriarrangandik gertuen dagoen...

Lasarte-Oriaren herri-izaera eta nor-itasuna berreskuratuko ditugu...

Uste dutenak, Lasarte-Oriako udalaren arazoak konpontzen dituen...

Herriaren entzuna eta aintzat hartzea...

Nire lehentasun funsezkoena eta zuzenena udalaren kudeaketa...

Gizarte jardunaldiak, erakundeak, erakundeak...

Quisiera ser alcalde de "Lasarte-Oriakua" Daria a los pobres, malita...

Honela da: "Lasarte-Oriakua" herriaren izena gure elkar...

Lehenik eta behin, udaleketa izaki herriarrangandik gertuen dagoen...

Lasarte-Oriaren herri-izaera eta nor-itasuna berreskuratuko ditugu...

Uste dutenak, Lasarte-Oriako udalaren arazoak konpontzen dituen...

Herriaren entzuna eta aintzat hartzea...

Nire lehentasun funsezkoena eta zuzenena udalaren kudeaketa...

Gizarte jardunaldiak, erakundeak, erakundeak...

Quisiera ser alcalde de "Lasarte-Oriakua" Daria a los pobres, malita...

Honela da: "Lasarte-Oriakua" herriaren izena gure elkar...

Lehenik eta behin, udaleketa izaki herriarrangandik gertuen dagoen...

Lasarte-Oriaren herri-izaera eta nor-itasuna berreskuratuko ditugu...

Uste dutenak, Lasarte-Oriako udalaren arazoak konpontzen dituen...

Herriaren entzuna eta aintzat hartzea...

Nire lehentasun funsezkoena eta zuzenena udalaren kudeaketa...

Gizarte jardunaldiak, erakundeak, erakundeak...

Quisiera ser alcalde de "Lasarte-Oriakua" Daria a los pobres, malita...

Honela da: "Lasarte-Oriakua" herriaren izena gure elkar...

Lehenik eta behin, udaleketa izaki herriarrangandik gertuen dagoen...

Lasarte-Oriaren herri-izaera eta nor-itasuna berreskuratuko ditugu...

Uste dutenak, Lasarte-Oriako udalaren arazoak konpontzen dituen...

Herriaren entzuna eta aintzat hartzea...

Nire lehentasun funsezkoena eta zuzenena udalaren kudeaketa...

Gizarte jardunaldiak, erakundeak, erakundeak...

Quisiera ser alcalde de "Lasarte-Oriakua" Daria a los pobres, malita...

Honela da: "Lasarte-Oriakua" herriaren izena gure elkar...

Lehenik eta behin, udaleketa izaki herriarrangandik gertuen dagoen...

ANNAIAK JANTZ I - D E N D A 40 URTE ZUEKIN !! Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA Tel.: 945 562586

Bildu Lasarte-Oria, Euzko Lehen Alderdi Sozialista, logo

ARCACHON

Gazte Kluba eta Kuadrillategi Arcachoneko uretako parkera

Gazte Kluba eta Kuadrillategiko gazteek ekainaren 19an Arcachoneko uretako parkean gozatzeko aukera izango dute.

Hipodromo etorbideko zubitik aterako da autobusa goizeko 08:30etan. Eguna uretan igaro ostean, arratsaldeko 20:30ak aldera izango dira etxean.

Txangoaren prezioa 30 eurokoa izango da Ttakuneko bazkide ez direnentzat eta 27 euro bazkideentzat.

Izena ematea bihar, maiatzaren 17a, asteartea irekiko da. Interesa duenak Ttakun Elkartetik pasa beharko du. Antolatzaileek jakin arazi digutenez, plaza kopurua mugatua izango da, autobusa bete arte. Beraz, azkar ibili.



MENDIZ MENDI, MENDEZ MENDE

Herritar ugari hurbildu da Gipuzkoako natura eta ondare kulturala ezagutzera

Kutxak eta Foru Aldundiak sustatutako *Mendiz Mendi, Mendez Mendez* kanpainako autobusa Lasarte-Oriara iritsiko zen asteazkenean.

Hiru egunez, Gipuzkoako natura eta kultura-ondareak uzartzen dituzten loturak ezagutzeko aukera izan zen gure herrian eta ugari izan ziren Brigitarren plazan zegoen autobusera hurbildu ziren herritarrak.

ELKARTASUNA

Udalak Lorcara diru laguntza bidali du

Lorcako hiriak asteazkenean, maiatzaren 11n, lurrikarek sortutako kalteei aurre egiteko aparteko errekurtsioen beharrenean eta bere biztanleek bizi duten urgentziatzeko egoeraren aurrean, Lasarte-Oriako Udalak Gurutze Gorriak kaltetuei laguntzeko egindako deialdiari erantzunez, 6.000 euro emango ditu laguntzeko.

CNT SINDIKATUA

Hauteskundeetan ez bozkatzeko deialdia

CNT sindikatuak 2011ko Udal Hauteskundeetan abstentzio aktiboa egiteko deialdia egin du.

Abstentzio aktiboarekin borrokatzea proposatzen du sindikatuak. Izan ere, politikarien ustelkeriaren kontra, hauteskundeetako zirkoaren kontra, demokrazi faltuaren kontra eta batez ere, sistema eta kapitalismoaren aurka bide bakarra bezala ikusten du abstentzia.

Horregatik, sindikatuak maiatzaren 22ko hauteskundeetan ez bozkatzeko deia egin die herritarrei.

ATSOKAKAR ERRESIDENTZIA

Langileen borroka jarraitzen du

CLECE enpresaren erantzun eza dela eta, Atsokakar erresidentziako langileek lan baldintzak duinak izateko borrokan jarraituko dute eta, maiatzaren 23tik aurrera haien lan orduetan lanuzteak egingo dituztela jakin arazi dute.

UGT sindikatutik adierazi digutenez, "maiatzaren 16an, CLECEekin Atsokakarreko erresidentziako zerbitzu minimoetako egutegia adostea espero dugu. Langileen lanaren arabera zehaztuko dira horien ordutegiak eta erresidentzian dauden pertsonen kalterik txikiena egiten dien zerbitzu minimoak izango dira".

Diru laguntzen araudia eta zinegotzien agurrak

Azkenik, Udaltzarrak Diru laguntzak emateko ordenantza onetsi zuen ostegunean. PSE-EEren botoak izan zituen bakarrik araudi berri honek.

Izan ere, LOHP eta ezker abertzaleko zinegotziak aurka agertu ziren eta haien mintzaldietan argi utzi zuten.

Ezker abertzaleko zinegotziek araudia hanka motz dagoela salatu zuten. Erizpide tekniko gehiegi dagoela eta zehaztapenak falta direla, esate baterako, "nork erabakitzen du jarduera bat herriarentzat garrantzitsua dela?".

LOHPko zinegotziak azpimarratu zuten, "araudi honek ez diela Udalak dituen arazoei irtenbidea ematen", ez baititu taldeentzako puntu garrantzitsuak direnak argitzen.

Eta biak araudi hau izaera orokorrekoa izatea salatu zuten. Izan ere, oinarri orokorrak ezartzen ditu araudiak, baina orain sail bakoitzak eranskin bat egingo du.

Bestalde, Iñaki Mujikak azpimarratu zuenez, ordenantza hau osatzeko prozesua oso parte-hartzailea izan zen, "udal teknikari guztiak parte hartu dute beren esperientzia gehituz".

Galderak eta eskaerak

Andre Joakina haurtzaindegia, Atsokakar zaharren egoitza eta jangelaren negoziaketen egoera eta azken honen sukaldearen erabilerrari buruz galdetu zuen ezker abertzaleak.

Alkateak Andre Joakinari dagokionez, Udala Partzuer-



Diru laguntzen araudi orokorra onartu ostean, arlo bakoitzak berea egin beharko du.

goarekin bileretan dagoela eta bertako pertsonala mantentzen saiatuko dela jakin arazi zuten.

Atsokakar egoitzako erantzukizuna Foru Aldundiak hartu behar duela eta gutuneri erantzuten ez dietenez, Udala abokatuekin harremanetan jarri dela eta denuntzia jarriko zailela aipatu zuen ere alkateak.

Eta azkenik jangelarekin arazoak egon direla aitortu zuten, Hezkuntza delegaritzako arkitekto batek ez zuelako jangelako eraikuntza egokia ikusten. Baina beste bat bidaliko dutela eta egokitzeko lanak egingo direla jakin arazi zuten, baita bertako sukaldearen erabilerrari buruz ere.

Agurrak

Honetaz gain, ezker abertzalearen izenean Txanpi Baztarririk lau urte hauetan "lanera gontozela eta lan egin dugula" adierazi zuen. Udalak aldaketa behar duela eta 25. urteurrenko ospakizunetako herritarren parte hartzeak aurrera jarraitu behar duela azpimarratu zuten,

"herriak parte-hartzailea izan behar baitu".

Horren ostean, nahiz eta azken udalbatzarrerako utzi nahi, alkateak legealdi honetan zinegotzi izateari utziko dietenei hitza eman zien.

Honela, Ana Urchuegia alkate-ohiak gogora ekarri zituen gure artean ez dauden alderdi guztietako zinegotziak eta eskerrak eman zizkien herriaren alde lan egin duten Udaleko langileei.

Ione Altunak ere eskerrak eman zizkien kultura eta hezkuntza sailean berarekin lan egin duten teknikariei.

Zuzenketa

Aurreko zenbakian 3. orrialdean Teresategi Hegoaldea eremua Errekaldeko industrialdeari zegokiola azaldu bagenuen ere, okerreko informazioa eskaini genuen. Teresategi Hegoaldea eremua Teresategi inguruan doan industrialdeari dagokion proiektuaren lehengo pausua da osteguneko Udaltzarraren eman zena.

Legealdiko zerga-bilketa ona izan da

Lasarte-Oriako Udalak 2006-2010 urteen arteko zerga-bilketa gestioak emaitza bikainak izan dituela jakin arazi du, Ogasun Batzordean datuak aztertu eta gero.

Udalaren ustetan azpimarratzekoa da, 2006 eta 2009 urte artean, borondatezko bilketan kobratzeke geratzen dena ez dela behin ere %1etik gora igo.

Jesus Zaballos alkateak azaldu zuenez, "laburbilduz, agintaldi honetan egindako zerga-bilketaren gestioa bikaina izan da".

Bide exekutiboa

Hau guztiaz gain, bide exekutibora bideratzen diren ordainketa eta berreskuratzen diren kopuruen ehunekoak ere eskaini ditu Udalak.



Udalaren zerga eta tasa bilketa ona izan da Lasarte-Oriako 2006-2010 urteen artean.

Honela, 2006 eta 2007 ekitaldian, bide exekutibotik ordaintzeko zegoenaren %68,93a abonatu zen. Portzentaje hau %81,86ra igo zen da hurrengo ekitaldian, 2008 eta 2009koan, %96,84ra iristen da eta azke-

nik, 2009-2010 ekitaldian kobratu gabekoaren %35,66a berreskuratuta da.

Azken datu hau, Udaletik azaltzen dutenez, erreziboak kobratzeko tramiteak oraindik martxan daudelako ematen da.

Egunero

Erakusketa

PALESTINA ETA GOLANeko GIZA EUSKUBIDEAK izenburuko argazki erakusketa Mundu Bat Gobernuaz Kanpoko Erakundearen eskutik. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Asteazkena, 18

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, SEMEAK/ALABAK EZ DIT OBEDITZEN Pilar Seminarioren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Ostirala, 20

Hitzaldia

EGURALDIARI BURUZ arituko da Txanetenea baserriko Joxe Ramon Apaolaza. Solasaldia Zabaleta auzoan izango da, 20:00etan.



Bakarrizketa kulturetxeko kafetegian

KIKE BIGURIREN bakarrizketak entzuteko aukera bikaina egongo da kulturetxeko kafetegian Xpression taldeak Lasarte-Oriako Udalarekin batera antolatzen duen gazteentzako ekimenen barruan.

OSTIRALA, HILAREN 20AN
KULTURETXEAN, 20:00ETAN
GAZTELANIAZ

Antzerkia

BUAH TXABAL antzerki emanaldia ikusteko aukera. Unai Iturrriaga durangarrak idatzitako testua, Jon Zubiaga aktoreak taularatuko du. Topaguneko Kultur Errota egitasmoaren barnean kokatutako emanaldia. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

EUSKARAZ



Kontzertua

WHA WHA BUGA BAND taldearen reggae, blues eta rock doinuak entzuteko kontzertua Abend kafe-antzokian gaueko 12etatik aurrera. Doan.



Osteguna, 26

Zinea

NEDS filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

GAZTELANIAZ



Ostirala, 27

Kontzertua

HIRA taldearen kontzertu akustikoa. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



Eskutitza

Eztabaida publikoak egiteko gonbitea

Lasarte-Oriako Herritarren Plataformak, eztabaida publiko bat egiteko eskaintza egin die Lasarte-Oriako udal hauteskundeetara aurkezten dien talde politiko guztiei. Eztabaida honekin gure asmoa honakoa zen: herritarrei aukera ematea aurrez aurre ezagutzeko bai hautagaiak baita hauek programa ere, eta bakoitzak bere ondorioak ateratzeko aukera izatea. Ekimen honetan talde guztien parte hartzea nahi genuen, eta eztabaidari dagokion guztia adostasunez egitea: lekua, eguna, ordua, moderatzailea... e.a.

Zoritxarrez eta aurrekusi zitekeen moduan, ez dute talde guztiek erantzun, ez PSOEek, ez EBk ezta PPK ez dute gure gonbitea erantzun. Gainontzekoak: Bilduk, PNVk, Aralarrek eta H11ek baietz esan diote gure proposamenari eta prest agertu dira elkarlanean. Lerro hauek beraien predisposizioa eskertu nahi dugu eta penatu gainontzeko taldeak ez direla gai izan ezetz esateko ere.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Lasarte-Oriako Herritarren Plataforma

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Udako Txokotan izena emateko epea

Ttakun Kultur Elkartek, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin antolatzen dituen Udako Txokoetan izena emateko epea aste honetan bukatzen dela gogoratu arazi nahi dute antolatzaileek.

Epea maiatzaren 19an amaitzen da, ordurarte izena ematen duten haur guztiak hartuko dira; egun horretatik aurrera taldeetan lekuri baldin badago soilik hartuko dira. Izen ematea Amaraun ludotekan, Ttakuneko bulego-

an edo www.ttakun.com web atarian egin daitezke.

Matrikularen ordainketa Kutxan (gogoratu haurren izena jartzeaz) edo Ttakuneko bulegoan bertan txartelarekin egin ahal izango da. Zalantzarik izanez gero, deitu 943 371448 telefonora.

Zabaleta auzoko jaiak

Zabaleta auzoko lagunak hasiak dira auzoko jaiak prestatzen. Aurten ekainaren lehenengo astean izango dira jaiak eta hauek antolatze bilerak ostegunetan egingo

dira, auzoko Antonio Blas plazako garajea.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, bi telefono mugikor bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla

egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).




herritar
PLATAFORMA
ciudadana
LASARTE-ORIA
www.pclo.net



somos gente como tú

zu bezalako herritartak gara

Zure botoak gauzak alda ditzake
Tu voto puede hacer cambiar las cosas



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

**Ate irekiak,
maiatzaren 14an eta 21ean,
larunbatez, 11etan**

Energia eta ura



Mekanika



Elektrizitatea



Administraritza

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com